

KULTURA INOIZ BAINO EGITARAU ZABALAGO 24. EUSKAL JAJETAN
ZER BERRI UDALAK JUBILATUEN EGOITZA EROSIKO DU

piñpilean

Soraluzeko Hamabostekaria 91. alea 2004ko maiatzaren 21a



IBAIA

herriaren islada



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



Udako Euskal **Unibertsitatea**

32. Udako Ikastaroak 04

www.ueu.org / 943 82 14 26

ZUREKIN ZURETZA

IKASTAROAK

- * Informatika
- * Kazetaritza
- * Historia
- * Soziologia
- * Natur Zientziak
- * Psikologia
- * ...



Biarritz:
uztailak 05-09

Iruña:
uztailak 19-23



Terrorismoa eta emakumeak

UBANE MADERA

2003: 98 hildako eta 30.000 salaketa baino gehiago. 2004 (bost hilabete): 42 hildako eta milaka salaketa.

Ez. Datuok ez dira azkenaldian denon ahotan dabiltzan Irakeko torturen gainekoak. Ez dira, ezta ere, beste askoren ahotan ibiltzen diren bestelako atentatuen gainekoak. Datuok gizonen terrorismoa jasaten duten hildako edo zauritutako emakumeen gainekoak dira.

Terrorismoa. Moda-modan dagoen berba bat. Zeinek erabakitzen du zer den terrorismoa? Zeren eta biktima kopurura mugatuko bagina, emakumeek jasaten duten hori, hori litzateke terrorismoa. Eta numeroei kasurik egingo ez bagenie ere, terrorismoa izaten jarraituko luke. Duda barik. Terrorismoa: terrorearen bidez menperatzea; edo behin eta berriz indarkeria ekintzak egitea terrorea sortzeko. Hala dio hiztegiak. Eta emakumeek, justu, horixe jasaten dute: terrorea. Hilketak, jipoiak, bortxaketak... Urtero-urtero milaka eta milaka. Eta ez da ezer gertatzen.

Alde batetik, nik, behintzat, gizartearen ez dut ikusten beste edozein gertara latzek sortarazten duen larritasun eta haserrikerik. Agintarien gainean zer esanik ez. Emakumeen kontrako terro-

rismoari aurre egiteko ezarrita dituzten legeek, gainera, ez dute ezertarako balio. Bestela, begiratu emaitzei. Eta poliziaren jarrera? Zerbait esatearren, lotsagarria. Behingoz, halako batean, epaileak gaizkilea zigortzen badu, polizia ez da arduratzen zigor hori ganoraz betetzen duen edo ez zaintzeaz. Zenbaitetan entzun dugu epaileak emakumearengandik urruntzeko agindua bete ez eta egundoko jipoiak eman eta gero, azkenean emakumea hil egin duela gizonak? Oraingo astean bertan gertatu da halakoren bat; joan den astean beste bat, eta aurrekoan, eta aurrekoan... Eta ez da ezer gertatzen.

Gure etxeari begiratuta, hemen gaurte batek hamar urteko kartzela zigorra izan dezake kutxazain bat erretzeagatik. Aldiz, gizonen batek emakumeari hil arteko jipoiak eman diezazkioke eta burua tente-tente duela aterako da kalerara.

Aurrekoan, tratu txarrak jasandako emakume batek zera zioen: "Sekulako lotsa sentitzen nuen gizonak tratu txarrak egiten zizkidanean, eta ez nintzen ni lotsatu behar nintzena, senarra bai zik".


Horraio iritsi gara. Gaur egun, gure gizartearen, biktima da lotsatzen dena. Zergatik? Eta noiz arte?

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. hemen gatzoz berriz. Stop. herriko txutxumutxu eta abarrekin. Stop. Gaztetxetik Punk kontuak. Stop. "Que es eso del Anarkopunk!" hitzaldixa. Stop. ez gara kapaz izan han esan ziranak laburtzeko. Stop. gauza askotaz pentsatu zan. Stop. gutxitan moduan. Stop. gizartiaren norabidiaz. Stop. bakoitzaren bizimoduaz. Stop. inkoherentziaz. .. Stop. hori ezin leike kontatu, bizi egin behar da. Stop. Euskal Jaixa moduan. Stop. aurten badago ekitalditan... Stop. egitarau osua sartzeko be lanak izan dittugu. Stop. euskal kultura gogor dago itxuraz. Stop. baina itxuraz bakarrik!. Stop. ibaiaren egoera garbixago ikusten da. Stop. gixajuok ez dakigu zer galdu dogun. Stop. eh Jaime?. Stop. gaur be balego "txanal" bat. Stop. ibaian gora eta behera ibiltzeko. Stop. traineru bat arraunian egiteko. Stop. kukaiña bat jaixetan puntara heltzeko ahaleginak egiteko. Stop. arrainak, goizetan pexkan egiteko. Stop. urak garbi iluntzixetan bañua hartzeko. Stop. hori ez da diruz ordaintzen!. Stop. prezio ona hartu bihar dau ba urak!. Stop. garbixa izan deila behintzat!. Stop. zikindu geuk zikinduko dogu eta!. Stop. Gozatu Galipoteko jaixekin!. Stop. baina pasatu barik eh!. Stop. extu extu egon biharko dogu eta!. Stop. Jubilatua be ba ei datoz gainera!. Stop. GORA GALIPOT!. Stop. GORA GALIPOTEKO JAIXA!

Erreportaia

Hogeitamar urte baino gehiago dira Deba ibaiaren lantegietako azido eta ixurkinen ondorioz kutxatu zela. Adin horretatik gorako jendea da "Plazentziako ibaiaren" garbi ezagutu duena.



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Zorion agurrak



Jokin eta Jone
Maiatzaren 23a eta
Apirilaren 21a
Urte bete eta 6 urte
ZORIONAK BIKOTE!!
Muxu haundi bana!
Etxekoen partetik.



Ibai Arizaga
Maiatzaren 25a
21 urte
ZORIONAK !!
Muxu haundi bat eta
ondo pasau zure
egunian!
Etxekoen partetik.



Ane Larreategi
Ekainaren 7an
21 urte
ZORIONAK !!
Oñatiko jaixetan afari
on bat egin bihar
dogu eh! ji, ji, ji!
"Lagunen" partetik.



Abigail Lozano
Maiatzaren 30ean
4 urte
ZORIONAK !!
Egun on bat pasa
zure urtebetetze
egunean.
Zu amatxok.

jaiotakoak

Gorka Garzia Altube
Malen Revuelta Irazabal



JARDUERAK

Udako kanpaldiak

8-18 urte bitarteko gazteei uda honetan burutuko diren kanpaldi eta udalekuei buruzko informazioa emateko ASTIALDI FOROA sortu da. Bertara deituta Euskal Herriko ehunka talderen kanpaldien berri emango dizute (943429767). Mendieta, basoetara, lakuetara, kanpamenduetara...

EHZ festibala

Topagunea euskara elkarten federazioak, euskara elkarteekin batera antolatuta, uztailaren 2, 3 eta 4an Xiberen burutuko den Euskal Herria Zuzenean festibalaren IX. ediziora laguntzaile gisa joateko pertsonak behar dira. Informazio gehiago 94 6215116 telefonon.

LANA

Lan-poltsa Arrasaten

Arrasateko Txatxilpurdi astialdi taldeak irailetik aurrera ondorengo lanpostuak betetzeko pertsonak behar ditu: ludoteka teknikaria, gazte txokoetako teknikaria, aisialdi eta eskola proiektuen dinamizatzaile eta koordinatzailea. Bidali Curriculum argazkiarekin idazkaritza@txatxilpurdi.com helbidera. Epea: maiatzak 30

Lan-poltsa Arrasaten

Oñatiko Udalak Euskaltegiko irakasle baten eszedentzia betetzeko, lan-jardun osoz kontratatuko den pertsona bat hautatu nahi du. Baldintzak: erdi mailako unibertsitate titulua edo balio-kidea, EGA titulua edo balio-kidea eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: ekainak 7

BESTELAKO IRAGARKIAK

Lokala salgai Sigman

90 m2ko lokala salgai Sigmako industrialdean. Toki onean. 609165448 (Elgoibar)

Pisu bat salgai SORALUZEN

Garaje eta guzti. Harremanetarako, deitu 656780748 telefonora.

Solfeoko eskolak emango dira irailetik aurrera. Interesatuok, deitu, 616533796 telefonora. (Izen ematea ekainaren 15a baino lehen.)

Gutunak

Euskal presoan eskubideen alde itxialdian!

Hemen naukazue berriz presoan bizi-baldintzen inguruan mintzatzeko. Dispertsioa indarrean jarritz, zeuzkaten helburuak lortu ez dituztenez, gero eta murrizketa, debeku, zigor...gehiago eta gogorragoak ezartzen dizkigute!

Brievako espetxea, murrizketa, debeku eta zigor askoren islada izanik, martxoak 22an astebeteko txandakako itxialdiarekin genion (astebete 5 metro karratuko ziegatik irten gabe).

Murrizketa eta zigor batzuk aipatze-arren:

Astero bi gutun bidali ditzakegu bakarrik.

Euskaraz idatzitako gutunak hilabete tartatzen dute.

Gutun batzuk ez ditugu jasotzen. Galdu akaso?

Hiruilabetero 10 lagun bakarrik etor daitezke bisitan.

Gure aldizkarien eta liburuen edukia gustoko ez badute edo euskaraz badaude, erretenu eta zentsuratu egiten dituzte, nahiz eta lege gordailua izan. Espetxeak erabakitzen du beraz zer irakurri dezakegun eta zer ez.

Gure komunikazio guztiak (gutunak, telefonoak, bisitak...) interbenituak daude, gure intimitate eskubidea eten-

gabe urratzen dutelarik.

Kateuak, edozertarako trabak...

Aipatutako presoan eskubideen urraketa ez dakasualitatea, soilik preso politikoan kasuan ematen bait dira, eta bereziki euskal preso politikoan kasuan.

Estatuek Euskal Herran bizi dugun gatazka, politikoa ez dela esaten dute behin eta berriz!

Baina euskal preso politikoak garelako urratzen dituzte hain zuzen ere gure eskubideak!

Preso politikoak gara Euskal Herrian gatazka politiko bat dagoelako! Gatazka politiko bada Euskal Herriak bizi duena, konponbideak politikoa behar du izan!

Ondorioz, eta preso politikoak garelako kontuan izanda, Euskal Herrian gatazka politikoaren konponbiderako ematen den prozesuan parte hartzeko eskubidea daukagu!

Ondorioz, eta preso politikoak garelako kontuan izanda, euskal Herrian gatazka politikoaren konponbiderako ematen den prozesuan parte hartzeko eskubidea daukagu!

GURE ESKUBIDEAK LORTU ARTE JARRAITUKO DUGU BORROKAN!

Regina Maiztegi Aboitiz (Brievako espetxean. Itxialdian maiatzaren 17tik 24ra.).



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@telexline.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

Zer irizten dotsazu?

Maiatzaren 6an egindako Udalabatzarrean, Udalak Gipuzkoako Ur Kontsorzioan sartzea erabaki zuen, horrela datozen hamar urteetan Kontsorzioa arduratuko da herriko uren kudeaketaz. Ondorioz, uraren zergak %30 egingo du gora uztailaren 1etik aurrera.

Zer eritzi daukazu Gipuzkoako Ur Kontsorzioan sartzeak ekarriko dabena prezio igoeraz?



Begoña Goenaga
etxeakoandria
67 urte
Ba ez dakit ze esan, zerbitzua hobetzen baldin bada ondo, baina prezian igoera haundia iruditzen jata. Prezia oso altua da.



Jose Ruiz
makinistia
41 urte
Tira, neurri hau igual ona izango da baina ur prezian igoera bat baldin badago ba ez dakit. Baina pentsatzen dot, positibua baldin bada... ba orduan ados nago.



Joseba Laskurain
makinistia
19 urte
Ba ez dakit ba, zerbitzuaren kalidadia hobia baldin bada ba normala da garestixagua izatia ura. Normala iruditzen jata.



Ines Fernández
metalurgiako langilea
54 urte
%30 a? exagerazio bat da, ze hemen oso garestixa da ura lehen be eta oin gehixago. Neurrixa igual ona izan leike baina prezioa ez da normala.



Izaskun Aguirre
tornileria
55 urte
Prezio aldetik oso gaizki, baina zerbitzua ona bada ba ordaindu egin biharko da gehixago. %30 eko igoeria seguru ikusiko dogula baina hobekuntzak ia ikusten ditugun.



Lolo Galarraga
Jubilatua
79 urte
Oin ez zeguan gaizki zerbitzua baina hobetzen bada ondo iruditzen jata. Beste herrixak hola egitten badare, eta konforme baldin badare, ez da izango neurri txarra.





Hnos. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Anarkopunkaren inguruan

Joan zen ostiralean, maiatzaren 21ean, Punk mugimenduaren ildo anarkistaren berri emateko hitzaldia izan zen Gaztetxean. Iruñako "La Panktera Rosa" taldeko ordezkari batek hasi zuen hitzaldia eta ondoren, bertara bildu ziren hogeitamarren bat lagunek gaur egungo gizartearen bizi ereduaren inguruan eztabaidatu zuten. Argi gelditu zen, Punk-a eta Anarkismoa, Gizartearen bizi eredu kapitalista eta indibidualistaren aurrean bestelako bizimodu bat garatzeko dauden aukera errealak direla.



145 Motorzale batu ziren herrian



Eguraldi a lagun, 145 motorzale inguru batu ziren Plaentxi Motoclub Taldeak antolatutako motorzaleen egunera. Scooter -etatik hasi eta woldwoing -etararte, era guztietako motorrak ikusi ahal izan ziren herrian.

Parkinson gaixoendako zerbitzu berria

Aspargui Debabarrena Elkartek, parkinson gaixoendako eta euren familiendako eskeiniko dituen zerbitzu berrien (logopedia, psikologia, fisioterapia, sikologia, gimnasia eta masaia) aurkezpena egingo du datorren ekainaren lehen Eibarren. Aurkezpena Eibarko Udal Kiroldegian izango da, eguerdiko 13:00etan. Soraluzekeko Udaleko Ongizate zerbitzuan informazioa.

HHI-ko tailerrak ekainean

Soraluze HHI-ko tailerrak (tridimensionalak, jostintza, margoketa eta zaharberritzea, pitxarrak kolarekin) Ekainaren 7tik 18ra izango direla eta interesaturik dauden pertsona guztiek (berdin da ikasleak izan ala ez) har dezaketela parte jakinarazten du.

Taldeak antolatu ahal izateko, parte hartu nahi dutenek Maiatzaren 27^a baino lehen eman beharko dute izena.

Aldi berean, datorren ikasturterako matrikula epea zabaltzen dela jakinarazten dute.

EHNA egiteko bulegoa Santa Anan

Dagoeneko zabalik dago Santa Ana kalean EHNA tramitatzeko bulegoa. Ostiral arratsaldetan (19:00etatik 20:00etara) eta larunbat goizetan (11:00etatik 13:00etara) izango da zabalik bulegoa.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

AV aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21 Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
50 Posta Kutxatila Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA



Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Jubilatuen egoitza erosi du Udalak

Maiatzaren 19an egindako ez ohiko Udalbatzarrean jubilatuen egoitza erosteko erabakia hartu zuen Udalak. Erabakia, Espainiako Lan eta Gizarte Ministerioak egoitza subastara ateratzeko asmoaren berri izan ostean hartu du Udalak, egoitza erosteko aukerarekin batera beste norbaiti saltzeko arriskua ere bazegoelako. Guztira, 140.636 euro (23.400.000 pezt.) ordainduko dizkio Udalak ministerioari egoitzarengatik, % 25 aurten eta gainontzekoa datozen 6 urteetan.

Udalbatzarrean EAJ eta EA, PSEE eta PPK eman zuten egoitza erostearen aldeko botua, SAH abstenitu egin zen. SAH-ek lokal hori "Frankismo garaian sindikatuei kendutakoa" zela salatu zuen eta jubilatuen egoitzarik egokiena ez dela adieraztearekin batera. Jubilatuen egoitza erosteko beharra adierazi zuen. PSEeko ordezkariak alkatea zoriondu zuen egoitza erosteko egindako ahaleginagatik, Sorluzeko Alderdi Sozialistaren aspaldiko eskakizuna izan dela gogoratuz. PPKo ordezkariak ere Gobernu Taldea zoriondu zuen hartutako erabakia txalotuz. Azkenik, Alberto Sudupe alkateak hartu zuen hitza. Oso garrantzitsutzat jo zuen egoitza erosteko erabakia, "herri batek



bere pertsona nagusiengatik egiten duenak adierazten du bere Gizarte politikaren neurria". Horrekin batera, 1979ko urriaren 31an Udalak egindako Udalbatzarren akta banatu zuen, bertan, lokal horiek adineko pertsonen aisialdirako bideratzeko sindikatuekin lortutako adostasunaren berri jasotzen da. Aurrerantzean ere espiritu horrekin jarraitzeko konpromezua adierazi zuen alkateak. Egoitzara irisgarritasuna errazteko igogailu bat jartzeko asmoa ere agertu zuen.

Sahiesbideko lanak gelditu jarraitzen dute

Apirilean Olatik Estaziorako sahesbiderako lanak gelditu ziren eta geldituta jarraitzen dute oraindik. Udaleko Hirigintza sailetik jakinarazi digutenez, lanak gelditzearen arrazoia Zeletako zubia bota eta berria egiteko proiektu berria egiteko sortu zen beharra izan zen. Dagoeneko proiektu berria egina dago eta orain Udalbatzarrak onartu beharko du datozen egunetan. Hala ere, lanak gelditu izateko beste arrazoi bat ere badago, maiatzaren 10ean hasi eta oraindik amaitu gabe dagoen erakuntza alorreko greba hain zuzen. Amaitzeko itxurarik ez du oraindik.

Ongizate zerbitzua Udaletxe ondoan

Datozen hilabeteetan Udaleko ongizate zerbitzua Udaletxe ondoko lokalera aldatuko da. Udalak ondoko dendako lokal hori (bazarra) erostea erabaki du, zerbitzu honen erabilpena egiten duten herritarrek (adinekoak eta gaixoak horietako asko) Udaletxeko azken pisuraino igo beharrik izan ez dezaten. Datozen hilabeteetan aldatu da zerbitzua bertara.

Regina Maiztegi astebeteko itxialdian

Etxerateg jakinarazi duenez, Regina Maiztegi (Avila) sorluzetarrak astebeteko itxialdia egin berri du maiatzaren 17tik 13ra bitartean, martxoaren 11ren ostean euskal presoek jasan duten eskubide murrizketa (jipoiak, isolamenduak...) salatzeke. Zazpi egunean bere zeldatik atera gabe egoez gainera egun bateko baraualdia ere egin omen du. Etxerateg azaldu digunez, Castelloko gartzelan (Pedro Jose Etxeberria dagoen gartzelan), orain bi urtetik, hilean bi igandetan baraualdiak egiten dituzte eskubide murrizketak salatzeke.

"Apartheid polikoa" salatzeke mozioa

Maiatzaren 19an egindako Udalbatzarrean, Sorluzeko Askatasun Haizeak taldeak ezker abertzaleko "herri plataformek jasaten duten apartheid politikoa" salatzeke aurkeztutakomozioa eztabaidatu zen. Mozioa puntuz puntu bozkatu zen eta lehenengo puntua, non "Madrilek gure herriaren eta herritarren eskubideak urratzeko egindako saiakera" salatzen duen, EAJ, EA eta AHen aldeko 9 botuekin onartu zen. Beste bi puntuak, "herritarren borondatearen ginetik dagoen inongo legalitaterik ez onartzea" eta mobilizazioa ez ziren onartu.



Instalazioak
Berrikuntzak

Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Ibaiaren saneamendu plana atzerapenez baina hasi da

Hogeitamar urte baino gehiago dira Deba ibaia lantegietako azido eta ixurkinen ondorioz kutxatu zela. Adin horretatik gorako jendea da "Plazentziako ibaia" garbi ezagutu duena. Gainontzekoek kolore eta usai ezberdinez ezagutu dute ibaia, ur kutxatuzko gune zikin bezala, oso urruti garai baten zen bezela herriko gune erreferentzial nagusietako bat izatetik.

Urte asko dira, erakundeetatik Deba ibaiaren inguruan araztegiak jarri behar zituztenaren zurrumurruak entzun zirela. Badirudi datozen urteetan, orainartean hartu ez diren bezelako neurriak hartuko direla.

Ibaiaren egoeraren eta dauden egitasmoen berri jakin nahi izan dugu.

Gipuzkoako kutsatuena

Azken urteetan Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egindako azterketen arabera Deba Ibaia da Gipuzkoako ibaien artean egoera kaxkarrenean dagoena. Uraren kalitatea neurtzeko erabiltzen den puntukako sistemarekin jasotako azterketen emaitzek garbi erakusten dute Deba Ibaiaren kutsadura maila oso handia dela. Eusko Jaurlaritzako Ur Partzuergoak 2003an egindako azterketen arabera, Deba Ibaiko urek 188ko puntuazioa jaso zuten Gatzagan hartutako laginetan (altuena 200 puntukoa da), baina oster, ibaian behera eginda Mendaron hartutako laginetan, ibai berdineko urak 43 puntu besterik ez zituen jaso. Horrek argi erakusten ibaian behera egin ahala kutxadura mailak gora egiten duela.

Orokorrean ibaiaren egoera "Oso txar" moduan izendatua dago mikroornogabekoen (bizidun txikien) kopuruari dagokionez. Sei maila bereizten dira (1 Oso garbia, 2 Egoera ona, 3 Egoera kritikoa, 4 eta 5 Oso egoera txarra, 6 Gutziz kutxatua) mikroornogabekoen kopuruaren arabera eta Deba 4. mailan dago.



Soraluze ibaiaren inguruan eraikitako herria da. Horren erakusgarri dira herrian dauden zazpi zubiak.

"Datozen urteetan, Arrasaten, Bergaran eta Elgoibarren eraikiko dira araztegiak"

Datuek erakusten dutenez, urak gero eta garbiago omen daude, baina hobekuntza hori oso txikia da oraindik. Bestalde, jakin beharrekoa da, autopista berriaren lanak direla eta, ibaira iristen diren lurra kalte handiak egiten ditu. Dena den, lehenengo pausua industria eta etxeetatik iristen diren hondakinak araztea omen da.

Hiru araztegi datozen urteetan Deba Ibaia Gipuzkoako ibairik ziki-

na izan arren, orainartean ez da ia ezer egin egoera honi buelta emateko. Europako Araudiaren arabera, 15.000 biztanletik gora batzen dituzten guneetan, 2001eko urtarrilerako kolektoreak eta araztegiak funtzionamenduan behar zuten. Baina egoera guztiz bestelakoa da Deba ibaiari dagokionez. Deban dagoen araztegia da dagoeneko funtzionamenduan ari den bakarra. Gainontzeko ibilbidean beste hiru gune bereizten dira eta datozen urteetan Arrasate (Epelekoa 2006rako martxan), Bergara (Mekolaldekoa 2007rako martxan) eta Elgoibarren (Arriagan 2006rako martxan) egingo dira araztegiak. Soraluzeko urak Elgoibarren egingo den araztegiara eraman-



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

ARRANO
tabernia

Telefonoa 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera



Olako presa txikitzearekin urak bizkorrago doaz Ola aldean. Herriko ibilbide guztian bezela ugariak dira basahateak zati honetan ere.

go dira baina Eibarraldekoak ez bezela oraindik ez dago Sorailuzetik Maltzagarainoko kolektoreak egiteko proiekturik. Sorailuzen, ia herri osoan (Olatik gora ez) kolektore bidez daude bideratuta etxe eta industrietako urak baina Mendiola Industrialdearen parean ixurtzen dira inolako arazketarik egin gabe.

Fauna eta flora arrotza

Azken urteotan asko ugaritu dira "paitta" edo basahateak deba ibaian zehar. 90. Hamarkadaren hasieran azal-

tzen hasi zirenetik herriguneen inguruetan ugaltu dira batipat, herritarrek emandako janariz elikatzen direlarik batez ere. Ur oiloak ere azaldu dira aspaldiko partez eta ugaritzen ari direla dirudi. "Urzoza" eta "ur-makinistia" hegaztiak, karramarroak, loinak eta barguak, aingirak, eskailoak eta ur-txakurrak aspaldi galdu ziren eta ez dira berriz agertu, banakaren bat ez bada. Landareriari dagokionez, kanpotik ekarritako landare motak ugaltu dira, bertako zumea eta haltzari tokia janean.

Ibaian arrantza egiten zenekoa

Jaime Aristi, Jubilatuen elkarteko lehendakariak kontatu dizkigu ibai garbi zegoeneko hainbat kontu. Jaimerren aitak "txanala" (txalupa) zeukan arrantza egiteko, herrian zuden hiru txalupetako bat zen hain zuzen.. Arrantza asko egiten omen zen orduan, kañabera, "abusa", korde-la..bitartez. Barguak, loinak, aingirak, eskailuak... denetik harrapatzen omen zuten. Hala ere, sekula ez omen pentsatu ere egin saltzerik, euran etxean edo lagunartean jan edo oparitu egiten zituzten. Kanpotik ere etortzen omen zen jendea arrantzara, Eibartik gehien, hemen arrain asko zegoelako. Gogoan du behin bere aitak txanalera ezin ateratzeko moduko aingira harrapatu zueneko. Ufalaren ostean ibai bazterrean batzen zituzten arrain pilak ere ez dauzka ahazteko. Orduan jendeak ibaiaren inguruan egiten omen zuen bizimodua. Errekastoetan erropak garbitu eta ibaian bañatzen omen ziren. Neska mutiko txikiak han ikaten omen zuten igeri egiten, ur txikitari lehenengo eta "tapakuan" gero. Begiak pizten zaizkio ibaia garbi zeneko garaiak gogoratze hutsarekin. Ibaia berriz garbi izatea izugarria litzatekeela dio baina orain ere gazteek arraunean egiteko moduko ibaia dela azpimarratzen du eta Udalak hori bultzatu behar lukeela. "Hau ibaixau Eibarren balego kristonak egingo litzuzkiek".

Bizi ohiturak araztu behar ditugu! Irati Trebiño (Biologian lizentziatua)

Gauza jakina da guztiontzat ibaiak egoera tamalgarrian daudela, baina araztegi bat, ura garbitzeko guztiz beharrezkoa den arren, ez da nahikoa hauen errekuperaziorako. Ibaian kalitatea ez da ur garbiak garraiatzera mugatzen, ekosistema konplexuak dira eta oso habitat desberdinak batzen dituzte, beraz, hauek mantendu edo errekuperatzeko faktore ugari izan behar ditugu kontutan. Ibai ertzak adibidez eragin izugarria dauka ibaiaren osasunean, bertatik jasotzen baitu materia organikoa. Gainera ibai ertzeko basoek ubidearen erosioa mugatzen dute, habitat berriak eratzen dituzte, uraren kalitatea hobetzen dute etab. Beraz lehorreko baldintzak kontutan hartu gabe nekez berreskura dezakegu ibai bat. Kontutan hartu beharreko beste faktore bat ubidea izan daiteke, honen itxurak ibaiaren energia eta materia garraioa baldintzatzen baitu, eta honek ibaiaren ezaugarri biologiko eta fisikoak.

"Kontsumo neurrigabeak kutsadura neurrigabea dakar eta horren aurrean ezer gutxi egin dezake araztegi batek!"

Beraz egia da ur kalitatearen narriadura arazo izugarria dela, eta hau araztegien bidez konpon daitekeela, baina ez digu ibai bizi bat ziurtatuko. Ibaietako ur kantitatea, ubidearen itxuraldaketa, gehiegizko higadura eta komunitateen degradazioa ere kontutan izan behar ditugu. Ur kontsumoaren igoera etengabeak, ubide eta urtegi berrien eraikitzeak, nekazaritza desegokiak, basomozketa neurrigabeak, errepede eta bestelako lan erraldoiek eta beste hainbat eraldaketek ibaiari kalte izugarria eragiten diote. Gainera azken urteotan

espezie arrotzak (nahita edo nahi gabe sartuak) asko ugaritu dira eta honek ere arazo larria suposatzen du, espezie hauek bertako espezieak kaltetzen baitituzte. Deba ibaia adibidez espezie harrotzek inbaditu dute, guztiz kanalizatua dago, errepedez inguratua, eta inguruko basoak suntsituak. Gaur egungo gizarteak arazoak modu zatikatuan ulertzera bultzatzen gaitu eta ez modu integral batean, bai arazo ekologikoei dagokionez eta baita beste edozein arazori dagokionez ere. Ibaiko ura garbitu nahi dugu, baina ez gaude prest gure bizi eredu kontsumista eta suntsitzaile hau aldatzeko. Ez dugu ikusi nahi aldaketa txiki batek eragin izugarria daukala. Gauzak osotasun baten barruan ulertzeko gai ez bagara alperrik da partxetxoak ipintzen saiatzea. Kontsumo neurrigabeak, kutsadura neurrigabea dakar, zatiketa eta suntsipen neurrigabea eta honen aurrean ezer gutxi egin dezake araztegi batek.

Inoiz baino ekitaldi gehiago XXIV. Euskal Jaietan

Euskal Jai Batzordeak eta Pil-pilean Euskara Elkarreak antolatuta inoiz baino ekitaldi gehiago izango da aurtengo Euskal Jaietan.

Ekainak 4
V. KANTU AFARIA

Ekainak 6
XXIII. HAURREN EUSKAL JAIA

Ekainak 8
HITZALDIA
"Euskal dantzen zentzuaz"
J.A. Urbeltz-en ahotik
20:00etan
Kiroldegiko Erakusketa Gelan

Ekainak 9
AURKEZPENA
Iñaki Iñurrietaren
"Kuskue Tanden"
19:00etan
Kiroldegiko Erakusketa Gelan
eta ostean...
Amodio gutunen sari banaketa

Ekainak 10
BIDEO EMANALDIA
70 eta 80. Hamarkadetako Euskal



Ekainaren 6an XXIII. Haurren Euskal Jaian dantza egingo du Urrats dantza taldeak.

Jaien bideo emanaldia.
19:30etan
Kiroldegiko Erakusketa Gelan

Ekainak 11
HAURRENDAKO IKUSKIZUNA
Takolo Pirritx eta Porrotx
"Mari Sorgin" Kiroldegian

MUSIKA KONTZERTUA
Jonu kantautorearen kontzertua
22:30etan Gaztetxean

Ekainak 12
EUSKAL JAI EGUNA
Goizean
Apostua ibaian
(Txakarra Vs Etxebarri)
Dantza taldea
Herri bazkaria

Bazkalostean
18:30etan Sagardo dastaketa
Imuntzo eta Belokirekin erromeria
(Tartean Larrain Dantza egingo da)



JAIETAKO BOZETO LEHIAKETA

OINARRIAK

- * Jai egitarauaren azalerako kartelak lau kolore eramango ditu eta 35 zentimetroko zabalera eta 45 zentimetroko luzera izango ditu.
- * Kartelaren gai artistikoa lehiakidearen irudimen eta abileziaren esku uzten da, herriko bizitzaren zenbait alderdiri buruzko alegoriak aurkeztu behar dituelarik.
- * Kartelak ekainaren 18eko eguerdiko ordubiak baino lehen aurkeztu behar dira.
- * Saria 250 eurokoa izango da, 100 euroko akzesita eman daitekeelarik hala iritzi ezker.
- * Karteletan "2004 SORALUZETAKO JAIK" jarri beharko da, egile bakoitzak deritzon banaketaz.
- * Lehiaketa hau herriko artistei zuzenduta dago.

Antolatzailea: Soraluzeko Kultura eta Gazteria Batzordea



Ibilaldirako autobusa

Herritarren aldetik izandako eskaria dela eta, Pil-pilean Euskara Elkarreak Leioan egingo den Bizkaiko Ikastolen Aldeko Ibilaldira joateko autobusa antolatu du. Irteera Gila zubian izango da goizeko 9:00etan.

Ezoziko Jaiak ekainaren 19 eta 20an

Aurtengo Ezoziko Jaiak ekainaren 19 eta 20an egingo direla jakinarazi digu Ezoziko Jai Batzordeak. Larunbaterako Kokein musika talde eibartarra ekartzekotan dira.

Etxabe Harategia



Euskal
txabalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Musika ikastea esku eskura!

15 Instrumentu ikasteko eskeintza Musika Eskolan !

Soraluzeko Musika Eskolak ekainaren 4rarte eskeiniko du datorren ikasturtean matrikulatzeko aukera. Lau urteko-entako musika tailerretik hasita, zazpi urtetik aurrera; klarineta, akordeoia, txistua, saxofoia, flauta, tronboia, trikita, pianoa, tronpeta, gitarra, biolina eta panderoa jotzen ikasteko aukera dago. Hmalau urtetik aurrera musika modenoko instrumentuak ere ikasi litezke; bateria, baxua eta gitarra elektrikoa esaterako. Gaztetxoez gain beste hainbat herritar ere animatzen dira musikaren bideari heldu eta instrumentu bat edo beste jotzen ikastera. Animatu zeu ere!

Lau urtetik hasi eta adin mugarik gabe, solfeoa edo intrumentua jotzen ikasteko aukera eskeintzen da



Maiatzaren 17an txikitxoek musika eskolara erakartzeko egin zuten saioa.

PANDEROA



JUAN ALBERDI

Juanek joan zen urtean ekin zion musika eskolan panderoa jotzeari. "Lagun batekin tratua egin neban, bera soinua jotzen hasten bazan ni panderoa jotzen hasiko nintzala... eta halaxe emon neban izena". Astean ordu erdiz joaten da musika eskolara eta Itziar Burunza irakaslearekin ikasten du. Ez daki solfeorik baina beharrik ere ez. Uste zuena baino hobeto moldatzen omen da.

PIANOA



BEGOÑA TXURRUKA

Begoñak gaztetan ikasi zuen solfeoa eta pianoa jotzen monjetan. Orain hamar urte inguru hasi zen musika eskolan eta astean ordu erdiz joaten da Marisa irakaslearekin pianoa jotzera. "Etxian pianua genkan hari mobimentu pixkat emoteko zeozer gehixao ikastia pentzau neban. Hasieran jente nagusi askok emon zeban izena baina orduko bik bakarrik jarraitzen dogu".

GITARRA ELEKTRIKOA



JULEN MENDIKUTE

Julen oraindela hiru urte hasi zen gitarratik elektrikoa jotzen. "Joku gehixen emoten daben instrumentua iruditzen jata. Solfeorik ez dakit baina tablatura bitartez ikasten dot". Kalaña izeneko herriko punk musika taldean jotzen du eta poliki poliki hobetzen doala esan digu. Astean ordu erdiz joaten da musika eskolara eta Keu musikari ezagunarekin ikasten du.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Toledo garaile Soraluze sarian



Gustavo Toledo, Toledo Telco taldeko txirrindularia izan zen garaile joan zen igandean jokatu zen Soraluze Sarian. Toledok 3:09:48 segunduko denboran egin zuen 129 kilometroko bidea eta mendiko saria ere beretako izan zen.

Mendi Asteak ekainean 10ean hasita

Mendi Taldeak antolatuta, datoren ekainaren 10ean hasiko da Mendi Astea. Antolatutako ekitaldien artean hiru diaporama emanaldi eta finalista eguna (20an) izango dira. Lehenengo diaporama emanaldi ekainaren 10ean eskeiniko du kiroldegiko erakusketa aretoan (19:30etan) Iñigo Mujikak, Peruko Mendilerro Zuriaren inguruan (hurrengoak 17an eta 20an).

Bigarren Anjel Vazquez iritsi zen, Azisa taldekoa, 43 segundura (Euskalduna Garaikurra ere bereganatu zuen) eta hirugarren Josu Agirre, Serbitzu taldekoa. 62 Txirrindularik hartu zuten parte lasterketan.

Futbito txapelketa ekainaren 5ean

Joan zen ostegunean aurtengo futbito txapelketa antolatzeko bilera egin zen Kiroldegian. Guztira 12 taldek eman zuten izena eta lehenengo partiduak datorren larunbatean, ekainaren 5ean jokatuko dira. Inskripzioak 70 euroko prezioa izango du. Taldekideen izenak lehenengo partidua jokatzearekin batera eman beharko dira.

EMAITZAK

Futbola

Zestoa 5 - SORALUZE 1 (Juben.)
(Denboraldia . amaitu du, taldeko multzoan)

Esku pilota

Aitor Atxotegi
Deba Arroko Txapelketa
Atxotegi eta Aspek Elgoibarren
22 - 19 galdu zuten.
Bergaran
22 - 06 irabazi zuten.
(Bi jardunaldi falta zaizkie ligila amaitu eta final laurdenetara pasatzeko. Saikapean lehenengo doaz)

AGENDA

Mendia

Igandean
Egun osoko irteera Senperera
(Mandale 573 m)

Esku pilota

Haritz Laskurain
maiatzaren 30ean, domeka
Castañañaresen
Leitza - Nalda
Del Rey - Laskurain

ekainaren 1ean, martitzena
Bergaran
Caffe - Berna
Berraondo - Laskurain

(16:30etan hasitako jaialdiko
3. partidua)

IKERLAKU
PODOLOGIA ZENTROA
OINETAKO GAIJOTASUNAK
AZTERKETA BIOMEKANIKOA
KIROL PODOLOGIA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

KALITATEA

Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Instalaciones Kalebarren S.L.

GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

**TXOKO
KAFETEGIA**

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behean, telf: 943751789

Ainhoa Arruabarrena

“Autoritaterik ez eta bizitzia bizi !”

Seguru asko irakurle bat baino gehixao harrittuta geratuko zan azken denboraldixan punk mugimenduak herrixan euki daben gorakadia ikusitta. Hori dala eta Pil-pileaneuok kultura honen jarraitzaile gazte batengana jotzia erabaki dogu, Ainhoagana. Aitortu doskunez ezin dau bizi musikarik barik eta baterixian autodidakta bat dala be jakin dogu. Artista eta musikazale hau erabat harrapatuta dago punkaren sareetan.

zena, abizenak ta edadia.

Ainhoa Arruabarrena Gil eta 18 urte.

Egun baterako plan aproposa

Lagunekin kuadrilako talderen baten kontzertura juatia.

Koloria, abestixa ta musika taldia

Beltza, Puto asko ke me dan (hau gure taldekua da) eta Eskorbuto.

Musika talde baten jotzen dozu?

Baterixia jotzen dot lau neskan artian osatuta daukagun talde baten, “Desprezio”-n. Ekainian Gasteizen joko dogu eta uztailaren 2xan Aramaixon Bergarako beste talde batzuekin.

Aurten batxilergua amaituta...

Batxilergo artistikua amaittu dot eta datorren urtian Arte Ederrak ikasten hasteko asmua daukat.

Ta noiztik datorkizu arterako zaletasuna?

3. DBHtik edo, baina betidanik gustatu izan jata, bereziki arte plastikuak.

Arterako berezkua bihar da ala edozeinen eskura dago?

Gogua jarri ezkerodana da posible, baina afiziñua bihar da.

Punk mugimenduan zergatik?

Oin dala urte eta erdi edo punk musika ezagutu neban klaseko lagun baten bitartez. Pentsakeria hasieratik gustatu izan jata, janzkeriak be erakarri eta poliki-poliki harrapatu egin ninduan punk kulturari.

Zertan oinarritzen da punk kultura?

Autoritaterik ez eta bizitzia bizi, ez dakizu eta noiz amaittuko dan.

Aldaketa honek zailtasunik sortu al dotsu zure inguruan?

Haiseran gurasueri ez jakuen janzkeria gustatzen, baina oin onartzen dabe eta ez dago arazorik. Arazo gehixen jentxiak



Bertso Begiz

*Musika gustuko ta
punkak harrapatu
orain berarengandik
ezin apartatu.
Nahiz jendeak zeharka
txarto begiratu,
bizirik guade eta
bizitzaz gozatu.
Pentsakera ona da
ezin da ukatu.*

Neko

(Doinua: Espainian behera)

Ainhoa Arruabarrena

emoten dittu, beti begira geratzen jatzuz eta askok kritikatzten nabe daroia-ten erropiagaittik.

Anekdotarik gertatu jatzu zure jatzeko modua dala eta?

Behin dendan lanian nenguala andra bat etorri jatan ia nere amamari janzkeria zer pentzatzen jakon galdetzen.

Andriak hasarre kristonak bota zozaten eta nik ezin izan notsan ezer esan,

bezerua zan eta. Bestela begira geratzen jatazeneri ia guapa ikusten nabem galdetzen dotset.

Bukatzeko, zelan ikusten dozu punk kultura?

Bere garaixan indarra euki zeban. Urte batzutan txarto egon ta gero, berriz be hasi da pitzen. Garai bateko indarra ez badaka be herrixan gero eta talde gehixago dare.

Juan Mari
Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



FER.

**S.A.
Industriak**

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Argazki zaharra



Iturria: Patxi Plazaola

Maristen eskolako ikasleak

1 971. urte inguruko Maristen eskola-ko argazkia da. Goian: Jose Badiola, Casimiro Plazaola, Candido Aramburu, (...), Itxaso, Iñurrieta, Hilario Iturbe, Patxi Plazaola, Juan Maieztegi, Nestrór Maieztegi. Erdian: (...), (...), Laskurain, (...), Martin Aristi, Victoriano Arizaga, Francisco Alberdi, Arritxa, Basilio Agirregomezkorta, Andres Arizaga, (...), Eugenio Aristimuño. Behean: (...), Bruno Treviño, Herman Badiola, (...), Agustin Arizaga, (...), (...), Jesus Caminaur, Manolo Galarraga, Jose M^a Leturiondo.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

*Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!*

DEITTU
943 75 13 04 ra

*Aurreko
alean...*



...eta irabazlea: Lourdes Maiztegi



VIDAL

frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



Ugaraxo

Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko

3 urteko neska-mutilak



Udaberriaz gozatzen

Kaixo:

Hemen gaituzue berriro ere, oraingoan udaberriaren gaia tokatu zaigu, ze ederra eta polita den eh!

Hau lantzeko mendi irteera bat egin dugu, fruta arbolak ikusi, lora desberdinak batu, marrazkiko

batzuk batu, tximeleta batzuk ikusi...ea, baina gelan ere jarraituko dugu gai honekin, hazien prozesua eta landarea sortzen denean etxera eramango dugu.


Urtaro honen zain egon ondoren, kerizpean atera

behar argazkia, beroak itoko ez bagara.

Ikasten ari garen tulipan txikiaren lagunak dioten bezela:

Udaberria heldu da.

GORA UDABERRIA!



Eibarko antzerki jardunaldiak

Urtero bezala aurten ere, Eibarren ospatzen diren Antzerki Jardunaldietara joateko gonbidapena jaso genuen eta maiatzaren 12 eta 17an, autobusa hartuta, Eibarko Unibertsitate Laboralera abiatu ginen.



PLAENTXI L.H.I.ko 5. Mailako ikasleak.

Lehenengo egunean, hamabian, beste eskola batzuetako hurrek eginiiko antzezlanak ikusi genituen: "Ostargia eta txoriak", "Itsuak" eta "Etxe honek antzerki handi bat ematen dau".

Hauetariko lehenengoa 1go mailakoek antzeztu zuten eta oso polita iruditu zitzaigun, txikitxoak izan arren oso ondo egin baitzuten.

Bigarrena ez zen gaizki egon, baina hirugarrenean aspertu egin ginen ez genuelako ezer entzuten. Hala ere, prestaketa lanetan parte hartu zuten guz-

tiak asko saiatu zirela nabarmena izan zen, baina urduritasuna ere agerian gelditu zen.

Hurrengo astelehenean, La Baldufa, Lleidako talde profesional batek eskainitako "Munchausengo Baroiaren abenturak" ikustera joan ginen.

Dirudenez, Munchausengo Baroia benetan existitu zen duela berrehun bat urte, Alemanian. Jaun hau ezaguna zen bera protagonista zen abentura fantastikoak eta harrigarriak kontatzen zituelako.

Obra hori asko gustatu zi-

tzaigun oso ondo antzeztu zutelako eta kontatu zituzten istorioak barregarriak zirelako. Nahiz eta berba asko egin ez, teknika desberdin ugari erabili zituzten: txontxongiloak, koloretako itzalak,... tramankulu gutxirekin gauza desberdin asko adierazten zuten.

Horrelako ekintzetara joateak benetan pena merezi duela eta datorren urtean ere, ahal bada behintzat, han izango gara abentura berriekin gozatzeko.

PLAENTXI L.H.I.ko 5.
Mailako ikasleak



Inkestatxiki

Zertan zare izena emonda eskolaz kanpoko orduetan?

ARNAITZ CIFUENTES 10 URTE 5.B

Ken 7 taldea da gehixen gustatzen jatana. Zintan daukat. Etxian musika asko entzuten dot.



LARA LOBATO 10 URTE 5.B

Fran Perea asko gustatzen jata. Abesti danak gustatzen jataz baina "La chica de la habitacion de al lado" gehixen. Ez dot askotan entzuten musikia.



MARTA VIDAL 8 URTE 3.B

La Oreja de Bangog. Bere disko bat daukat. Askotan entzuten dot musikia etxian.



IBAN MENDEZ 10 URTE 3.B

Ken 7 da nere talderik gustokuena. Ez daukat bere diskorik baina radixuan entzuten dot. Etxian entzuten dot musikia, dantik pixkat.



Txistiak-Txistiak-Txistiak



» Herri batetan baziren itsu bat, mutu bat eta gor bat. Esaten dio mutuak gorrari:

- Epa, epa!!!! Itsua gu espiatzen ari da!!!!a«

» Jaimito zigarro bat erretzen ari da, halako batean monja bat pasatzen da eta esaten dio:

- Hain gaztea eta erretzen?

Jaimitok erantzuten dio:

- Eta zu hain zaharra eta baberuakin?«



» Esaten dio ume batek amari:
- Ama, ama! Hil eta gero zer bihurtzen gara?

- Hauts, seme, hauts!

- Orduan nire ohe azpian, zenbat hildako daude!!!«




» Kartzelara iritsi berria den batek esaten dio besteari:

- Eta hi, zergatik hago hemen?

- Ez didatelako irteten uzten!«

Uxue, Elene, Asier, Ina, Iratxe,
Gorka, Hodayfa, Jenifer, Arnaitz



Denborapasak

Aurkitu hizki salda honetan denbora pasa hauek asmatu ditugunon izenak.

Asier	E	R	L	E	A	B	A	S	S	I	L	E	M	G	I
Aitor	I	P	O	T	R	I	L	A	N	D	T	X	E	R	R
Andoni	N	L	M	P	N	J	T	L	E	L	U	R	A	O	J
Unai	O	M	E	O	N	E	T	Z	R	O	A	L	I	P	O
Leire	D	L	D	R	O	R	O	R	I	L	P	F	F	F	K
Nerea	N	N	O	R	N	N	E	R	E	A	L	O	R	O	I
Itziar	A	I	T	O	R	E	L	I	L	O	R	A	I	R	N
Melissa	S	O	L	S	F	D	L	I	O	H	L	D	E	O	O
Jokin	A	N	D	O	N	I	O	T	R	I	L	I	O	L	N
Andoni	L	L	R	E	L	O	U	N	A	I	S	A	L	A	I
	S	F	R	D	R	R	E	G	O	A	D	A	A	N	R



Horoskopoa

ARIES

Martxoak 21 - apirilak 20

Zorte handia edukiko duzu main-teminduko zara eta.

TAURUS

Apirilak 21 - maiatzak 20

Diru faltan bazabiltza urdinez jantzi, diru asko irabaz dezakezu.

GEMINIS

Maiatzak 21 - ekainak 20

Gaur prestamo bat eskatzen baldin baduzu ez dizute dirurik eman-go ez baitute.

CANCER

Ekainak 21 - uztailak 20

Erosketak egin behar badituzu, ez zaitetz Eroskira joan lapur bat sartuko da eta.

LEO

Uztailak 21 - abuztuak 23

Laster kontrola edukiko duzu, ez ikasi, edozein modutan bikain egingo duzu eta.

VIRGO

Abuztuak 24 - irailak 23

Has zaitetz zure gorputza zaintzen, laster bikinia jarri beharko duzu eta.

LIBRA

Irailak 24 - urriak 23

Zuri begira dagoen pertsona hori ez pentsa zutaz maiteminduta dagoenik. Amorrua dizu.

ESCORPIUS

Urriak 24 - azaroak 23

Ikasketetan oso gaizki zabilta, gurasoak moskeatzen hasita daude eta andereñoa estresatuta, mese-dez hasi ikasten.

SAGITARIUS

Azaroak 24 - abenduak 22

Kontuz beroekin, estali burua. Txapela buruan eta ibili munduan.

CAPRICORNUS

Abenduak 24 - urtarrilak 23

Ez duzu lotsarik, kuleroak egun guztian erakusten dituzu. Zutaz gaizki esaka hasiko dira.

PISCIS

Otsailak 19 - martxoak 20

Ez hartu ohitura txarrik, kontu handiz ibili, dirua eta lagunak gal ditzakezu.

Ane, Imanol, Lara,
Ana, Miren, Ainhoa



Uni

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza

Uni

EIBAR

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
 Tel. 943 20 84 44 / Faxe. 943 20 31 96
 E-maila. uni@iesunibhi.com
 www.iesunibhi.com



EIBAR

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 9ra

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA: Maiatzaren 29an, 11.00etatik 13.00etara

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena
- ◆ Informatika Sistemen Administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena

Uni

ERMUA

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
 Tel. 943 17 62 57
 Faxe. 943 17 64 50
 E-maila. uni@iesunibhi.com
 www.iesunibhi.com



ERMUA



Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net



ELGOIBARKO INSTITUTUA 2004-2005 ikasturtea

LANBIDE HEZIKETAKO HEZKUNTZA ZIKLOAK

ERDI MAILAKO ZIKLOAK: TEKNIKARIA

- Elektromekanika (Automozioa, 2.000 ordu)
- Karrozeria (Automozioa, 2.000 ordu)
 - Merkataritza (1.400 ordu)
- Erizaintza laguntza osagarriak (1.400 ordu)

GOI MAILAKO ZIKLOAK: GOI TEKNIKARIA

- Automozioa ■ Administrarritza eta finantzak
- Ingurugiro osasuna

*Zatoz
elgoibarko
institutura*

HEZKUNTZA ZIKLOETARAKO AURREMATRIKULA: ekainaren 1etik 7ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuen, 80 ikasgairen eskaintza, **lan praktikak European**, Irakasle lizentziatu, ingeniari edo diplomatuak, ISO 9002 kalitate ziurtagiria, prozedura garden eta kontrolatuak, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak

EZOZIA JATETXEA

*Zatoz eta gozatu
gure jakiak!*



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE